

Udal talde politikoaren iritzia



2024RAKO ILUSIOA GETXON

2024. urteari ekin diogu jada, eta aurten udaletik eta udal-gobernutik Getxoko Eusko Alderdi Jeltzaleko kideok lanean jarraituko dugu zuon konpromisoak betetzen jarraitzeko, beti bezala, bai eta Getxon bizi diren eta lan egiten duten emakume zein gizonen zerbitzura egoteko ere.

Hasi berri dugun 2024. urtea erronkaz josita dago, eta oraingoan ere hauteskundearen kutsua izango dute, Eusko Legebiltzarreko nahiz Europako hauteskundeak izango baitira. Hauteskundearen ondorioz, ekintza politikoak erdigunean jartzen ditu herritarrei aurkezten zaizkien programak, proposamenik onena aukeratu dezaten bai programari, bai pertsonen taldeari dagokionez. Hala, Euskadi nahiz Europako gure pertsona onenak eta gure programa onena aurkeztuko baditugu ere, Getxoko EAJ-PNVko lantaldean dihardugun emaku-



me zein gizonok egunez egun gogor lan egiten jarraituko dugu, duela sei hilabete baino zertxobait gehiago gure herritarrekin hartu genituen konpromisoak betetze aldera. Telletxe kalean, metroko aparkalekua-
ren ondoan, bilketa-gune berrietako bat

jarri dugu jada. Birziklapenari lotutako helburuak betetzeko apustua da eta, horri esker edukiontzia horietan utzi ahalko ditugu horren handiak ez diren objektuak, Garbigunera eramateko beharrik gabe (orain arte larunbatetan bakarrik eraman ahal ziren bertara). Larunbatean, Telletxe proba pilotuan, orain arte bereizketan lagundu izan gaituen pertsonak jarraituko du; hala ere, edozein unetan jaitsi ahalko ditugu erantzukizunez eta zuhurtziaz bota nahi ditugun objektu horiek, produktu horietarako ez diren edukiontzien ondoan era desegokian abandonatu barik.

Ingurumenarekin eta birziklapenarekin hartutako konpromisoak lehenengo mugarrira lortu du 2024an, eta jarraituko dugu azterlan serioak egiten zehazteko nola gaitu daitezkeen plaza gehiago Areetako aparkalekuan nahiz Foru ka-

lekoan eta erabakitzeke San Nikolasen ezarritako alokairu-sistema berria ezarri behar ote den.

Ildo horretatik, 2024rako ingurumenarekin hartutako konpromisoaren baitan jarraipena emango zaio Areetako Kale Nagusian isurketa gutxiko gunearen proiektu zoragarriari, baina, horrez gain, berrikuntza interesgarriak nabarmenduko dira programan, hala nola oso harrera ona izan zuen eskola-bideen proiektua, eta BizkaiBizi izeneko bizikletak mailegatzeko sistema bultzatuko da.

Jasangarritasun- eta ingurumen-konpromisoarekin mugarrira da ere hiri-hondakin solidoak biltzeko eta garbitzeko lehiaketa berria, eta hobekuntza nabarmenak ekarriko dizkigu 2024an. Oraina hobetzea etorkizuna hobetzeko. Hori da Getxoko EAJ-PNVren konpromisoa, baita estreinatu dugun 2024an ere.



ALGORTAKO TAO GUNEA ZABALTZEA

Udalari TAOko adjudikazioa errepikatzen behartuko duen kondena ezarri ostean, uste dugu sortu diren arazoak konpontzeko unea heldu dela.

Ezarritako TAO sistemaren ondorioz, gainezka egoten diren gune urdinaren inguruko kaleak, TAOrik ez duten guneetan bizi diren kalterako. Gune ugari, besteak beste Villamonte, Iturribarri, Domingo Iturrate, Sarrikobaso, Arrigunagako jaispidea, Jata Mendia, Altube, Bidezabal, Abasota eta oro har metrotik bost minutura baino gutxiago dauden kale guztiak TAOko aparka-

leku alternatiboak dira orain.

Halaber, zenbait kaletan, hala nola Atxekolandetan eta Ereagako inguruan, arazo bera dago udan, eta Negubide nahiz Manuel Smith kaleetan eta Golf Zaharrean, berriz, urte osoan zehar. Egoera berri horren aurrean, Getxoko PP taldeko kideok urtarrileko osoko bilkuran planteatu nahi dugu TAO n sartzan den gunea zabaltzeko beharra. Aparkatzeko arazoak ditugun herritar guztiontzat bidezkoagoa eta onuragarriagoa den oreka nahi dugu. #esnatuGetxo



KONPONBIDERAKO GILTZAK



Larunbat honetan milaka herritarrek bat egingo dugu Sare herritarrak antolatu duen manifestazio nazionalaren deialdiarekin, "Giltzak" dinamikaren baitan. Dispersio-politika eta urrunketarekin amaitzea lortu bada ere, oraindik orain euskal presoek salbuespeneko neurriak pairatzen jarraitzen dute espetxeetan. Getxoko presoen kasuan, esate baterako, gehienak kalean egon beharko lirake ohiko legeak aplikatuko balitzaie, 3. gradu edota baldintzapeko askatasunean, horietako batzuk aspalitik gainera. Horregatik, Bilbon ozen aldarrikatuko dugu kolektibo honentzat

espreski diseinatutako salbuespeneko neurri horiek bertan behera uztea eta mendeku-politika horrekin amaitzea behingoz. Herri honek aspaldi egin zuelako konponbiderako hautua, eta bide horretan ere ezinbestekoa delako euskal presoek dagozkien eskubideak aitortzea eta errespetatzea.

Honegatik guztiagatik, beraz, getxoztar guztiak animatzen ditugu larunbatean 16:00etan La Casillatik abiatuko den manifestazio nazionalen parte hartzera. Izan gaitzen konponbiderako giltzak! Info + getxo.ehbildu.eus



GETXOZTAR ZAINZAILAK LAGUNTZEA

Nabarmendu nahi dugu Getxon mendekotasuna duten pertsonen arreta eta haien zainzaile diren senideak barne hartzen dituen eremuan egindako aurrerapena; Gizarte Kohesio Arloan sustatzen ari da, zeina PSE-EEK kudeatzen baitu. Zainzaileek dituzten beharrezko gaitzaile gaitzailearen emaitzak aztertu ondoren, esperientzia pilotu bat jarriko da abian, hogeitaz kasuri laguntza emate aldera. Helburua da zainzaileak harremanetan jartzea profesionalekin, haiek arduratu daitezkeen sortzen diren beharrei erantzuna emateaz, betiere orokorra, profesionala, espezializatua eta errealitate bakoitzari pertsona-

lizatutako ikuspegitik. Horrez gain, prozesu honetan IgurTek plataforma teknologikoa erabiliko dugu, zeinak ahalbidetzen baitu profesionalekin etengabe egotea harremanetan, bizikaltatea hobetzeko sortzen diren beharrei erantzuteko. Ekimen hau PSE-EEK eta udal honek mendekotasuna duten pertsonekin nahiz zainzaile diren senideekin duten konpromisoaren erakusgarri da. Ikuspegi multidimentsionala lortu nahi dugu, teknologia eta zaintza emozionala zein fisikoa uztartzen dituen, eta maite dituzten pertsonak zaintzeaz arduratzen diren bizitzan eragin positiboa sortzen duena.



ESKOLA PUBLIKOAREN ALDE

Datorren hilabetean matrikulazio-aldia hasiko da eta ikastetxe bila daude ehunka familia. Abenduan, gure eskola publikoei buruzko informazioa eskuratzeko modua hobetzeko proposamena genuen, bulego bat zabaltzeko matrikulazio, eskolen eta beken berri emateko, bai eta hezkuntza-eskaintza publikoari buruzko liburuxka bidaltzea ere. EAJk, PSEk eta EH Bilduk ez zuten eskola publikoa babestu, beste behin.